ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# RGI Renta Garantía Ingresos

# DEFENDAMOS LAS PRESTACIONES SOCIALES. NO A LOS RECORTES




### 1.-¿Qué es la Renta de Garantía de Ingresos?

La Renta de Garantía de Ingresos (RGI) es un derecho reconocido por Ley según la cual todas las familias que viven en la CAPV y que cumplen una serie de requisitos tienen garantizados unos ingresos mínimos. Si sus ingresos son inferiores a esa cantidad el Gobierno Vasco está obligado a complementar esa cantidad hasta la cuantía fijada en la RGI.

### 2.-¿Cuál es el cuantía de renta garantizada que tiene una familia?

Depende del número de personas de la unidad familiar. Así:

- Una persona sola tiene unos ingresos garantizados de 625 euros al mes, en doce pagas.
- Para las unidades convivenciales de dos personas es de 803 euros.
- 889 euros para 3 o más personas.

### 3.-¿Se aplica la cuantía aprobada en la ley?

La Ley aprobada en 2008 no se cumple. Desde 2012 se aplica un recorte del 7%. Este recorte lo impuso el gobierno de Patxi López y se ha mantenido todos los años.

### 4.-¿A cuánto ascienden estos recortes?

Este recorte del 7% supone que las personas que viven solas sufren un recorte mensual de 47 euros. Deberían tener garantizados 673 euros mensuales (en doce pagas), pero solo se les garantiza llegar a 625,58 euros. 47 euros es mucho dinero para quien tiene que mantener un hogar con ese dinero. Para las unidades convivenciales de dos personas el recorte mensual es de 60,46 euros, mientras que a 3 o más personas que viven solas les están quitando 66,89 euros.

### 5.-¿Es fácil acceder a la RGI?

Los requisitos para acceder a la RGI se han ido modificando en el tiempo. En los últimos años se han endurecido, dejando cada vez a más personas y colectivos sin derecho a esa prestación mínima. Así, se exige: ser mayor de 23 años, llevar un determinado tiempo de vida independiente y 3 años de empadronamiento. De este modo, alrededor del 30% de las personas necesitadas están sin protección.

### 6.-¿Cuántas familias perciben la RGI?

En enero percibieron la RGI 63.317 familias de la CAPV, en las que viven casi 180.000 personas (casi una de cada 10 personas). Entre ellas:

- 12.522 familias en las que hay alguien trabajando con salarios bajísimos tienen el complemento de la RGI. Es decir, una de cada cinco unidades perceptoras.
- 15.794 familias de pensionistas reciben la RGI (una de cada 4 perceptoras).
- La inmensa mayoría de familias perceptoras son nativas (el 73% de quienes perciben la RGI).
- La pobreza tiene cara de mujer. Muchas más mujeres que hombres perciben la RGI. Casi 10.000 familias perceptoras son monoparentales (mayoritariamente mujeres).

### 7.-La Ley dice que la RGI está en función del SMI. En 2017 el SMI ha subido un 8%. ¿Qué va a pasar este año con la RGI?

El Gobierno Vasco ha congelado la cuantía de la RGI en los primeros meses de 2017. Es decir, ha decidido no cumplir la ley aprobada en 2008 que establece una relación directa entre la RGI y el Salario Mínimo. Y en el proyecto de presupuestos plantea que la RGI suba este año solo el 1,5%. Es una decisión muy grave. Una vez más, las consecuencias de esa política las van a pagar las personas que se encuentran en peor situación en nuestra sociedad.

### 8.-¿Qué supone no aplicar la subida del 8%?

Aplicar la subida del 8%, además de cumplir la ley aprobada en 2008, significaría que las familias de la CAPV tendrían unos ingresos garantizados superiores en otros 50 euros, aproximadamente. No aplicar la subida del 8% supone no cumplir con lo aprobado en su día y dejar a la gente más necesitada de la sociedad sin esos 50 euros.

Eliminar el recorte del 7% y aplicar la subida del SMI a la RGI supondría que la renta garantizada para una persona que vive sola llegaría a los 726,5 euros al mes, 101 euros más que en la actualidad. Es algo de mera justicia. Es lo que se aprobó en el Parlamento Vasco en 2008. Y no hacerlo no tiene ninguna justificación, más allá de la de que el Gobierno puede preferir gastar el dinero en otras cosas en vez de garantizar a las personas unos ingresos que puedan facilitar llevar a cabo una vida un poco más digna.

**9.-¿Subir la RGI desincentiva la búsqueda de empleo?**

Nadie va a dejar de trabajar porque la RGI sea 50 ó 100 euros más alta o más baja. Quienes dicen eso lo que están planteando es tirar a la baja las prestaciones sociales para obligar a la gente a aceptar trabajos precarios muy mal pagados. Quieren extender la pobreza para que las empresas ganen aún más dinero. Quieren salarios bajos y la mínima protección social posible. Una RGI elevada lo que en su caso desincentivaría es el empleo basura. Y eso sería una buena noticia. Sin embargo, no hay más que ver la realidad del mundo del trabajo para darnos cuenta de que, desgraciadamente, estamos muy lejos de esa situación.

## STOP A LA XENOFOBIA

**No hay más que ver las portadas de diferentes medios de comunicación –tanto públicos como privados– para ver la campaña de criminalización de quienes perciben la RGI. Nos parece muy grave que se criminalice a las personas que perciben la RGI. Hoy esta gente está escondida, no se atreve a decir que necesitan la RGI para llegar a fin de mes. Estos medios de comunicación están lanzando constantemente mensajes xenófobos, relacionando yihadismo o delincuencia con RGI. Tiene poco que envidiar a lo que Donald Trump ha ido diciendo. Es hora de desenmascarar lo que hay tras esa campaña de criminalización, que busca que se recorten los derechos sociales y hacer una sociedad más insolidaria, más racista y más indiferente ante los problemas de la gente.**



## EL FRAUDE COMO COARTADA DE LA CRIMINALIZACIÓN

Todos los análisis oficiales muestran que el fraude en la RGI está a niveles muy bajos. ¿Defraudan las personas pensionistas, las trabajadoras, quienes están en desempleo? No. Y son la inmensa mayoría de quienes perciben la RGI, como hemos visto antes.

ELA está totalmente en contra del fraude, que hay que atajar. Sin embargo, nos llama la atención el énfasis que se hace con el fraude en la RGI, a la vez que se da cobertura institucional al fraude fiscal.

Un Informe de la UPV estima que el fraude fiscal en la CAPV asciende al año a más de 3.200 millones de euros. En la RGI la inversión social anual es poco más de 400 millones. Aunque el fraude en la RGI fuese del 5%, que no lo es, sería de 20 millones al año, mientras que el fraude fiscal es 160 veces mayor.

Una cosa es luchar contra el fraude, cosa que compartimos. Y otra es utilizar determinados casos para justificar que se recorten los derechos sociales. Por ahí no vamos a pasar.




## HAY QUE MOVILIZARSE

Tenemos que salir a la calle para defender el cumplimiento de la ley aprobada hace 9 años. Nuestros dirigentes se llenan la boca hablando de riqueza, de crecimiento, de que somos el no va más de Europa. Pues que lo lleven a la práctica. Es un orgullo pelear para garantizar a todas las personas unos ingresos dignos. Ser parte de una lucha con tanto trasfondo social es algo que merece la pena, y mucho.




## SÁBADO 1 DE ABRIL MANIFESTACIÓN 17:30 BILBAO (SAGRADO CORAZÓN) EN DEFENSA DE LOS DERECHOS SOCIALES

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# DBE Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

# ZAIN DITZAGUN GIZARTE-PRESTAZIOAK. MURRIZKETARIK EZ!




### 1.-Zer da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta?

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE/RGI) legez onarturiko eskubidea da. EAEn bizi diren familia guztiek, betekizun jakin batzuk betez gero, gutxieneko diru-sarrera batzuk dauzkate bermaturik. Familia baten diru-sarrerak gutxieneko maila horretatik beherakoak badira, Eusko Jaurlaritzak osatu behar ditu DBEren mailaraino.

### 2.-Zenbateko diru-kopurua bermatzen zaio familia bati?

Familia-unitatearen kide-kopuruaren menpe dago. Hortaz:

- Pertsona bakar bati 625 euro hilean, hamabi ordainsaritan
- Bi pertsonez osaturiko bizikidetza-unitateei 803 euro hilean
- 3 edo gehiagokoei 889 euro hilean.

### 3.-Legean onetsitako zenbatekoa ematen da?

2008an onetsitako legea ez da betetzen. 2012az geroztik %7ko murrizketa egiten da. Murrizketa hori Patxi Lopezen gobernuak ezarri zuen, eta ordutik hona urterik urte berritu da.

### 4.-Zenbatekoak dira murrizketa horiek?

%7ko murrizketa hori, bakarrik bizi diren pertsonentzat, hilean 47 euro gutxiago jasotzea da. Hilean 673 euro jaso beharko zuten, hamabi ordainsaritan; baina egiatan 625,58 euro ordaintzen zaie. Etxe bat mantentzeko diru-munta horrekin, 47 euro asko da. Bi pertsonen bizikidetza-unitateentzat, hileko murrizketa 60,46 eurokoa da; eta hiruko edo gehiagoko unitateei 66,89 euro kentzen zaie hilean.

### 5.-Erraza al da DBE eskuratzea?

DBE eskuratzeko betekizunak zorroztuz joan dira denboran zehar. Azken urteotan gogortu dira, eta gero eta pertsona eta gizatalde gehiago geratu dira gutxieneko prestazio hori gabe. Beharrezkoa da 23 urtetik gorakoa izatea, denbora jakin batez zure kabuz bizi izatea, eta 3 urtez erroldaturik egotea. Hori horrela, pertsona behartsuen %30 inguru babesik gabe geratu dira.

### 6.-Zenbat familiak jasotzen dute DBE?

Urtarrilean EAEko 63.317 familiak jaso zuten, guztira 180.000 lagun (ia 10etik 1). Haien artean hauek daude:

- 12.522 familiatan, baten batek oso soldata baxua izanik, DBEren osagarria jasotzen da. Hau da, bost unitate jasotzailetik bat.
- 15.794 familiatan, erretirodunak dira eta DBE jasotzen dute (4 unitate jasotzailetik 1).
- Familia jasotzaileen artetik gehien-gehienak hemen jaiotakoak dira (DBE jasotzen dutenen %73).
- Askoz emakume gehiagok jasotzen dute DBE, gizonezkoek baino. Pobreziak emakume-aurpegia du. Ia 10.000 familia jasotzaile, guraso bakarrekoak dira (gehienak emakumeak).

### 7.-Legearen arabera DBE Lanbidearteko Gutxieneko Soldatari lotua joan behar da. 2017an LGSak %8 igo da. Zer gertatuko da aurten DBEarekin?

Eusko Jaurlaritzak DBEaren zenbatekoa izoztu du 2017ko lehen hiletan. Bestela esanez, 2008ko legea ez betetzea erabaki du, han DBEaren eta Gutxieneko Soldataren arteko lotura zuzena ezarri baitzen. Eta aurrekontuen proiektuan proposatu du DBE aurten %1,5 baino ez igotzea. Oso erabaki larria. Berriz ere politika horren ondorioak gure gizarteko egoerarik ahulenean daudenek jasango dituzte.

### 8.-%8ko igoera ez aplikatzeak zer ekarriko du zehazki?

Bada, %8ko igoera aplikatzeak, 2008an onetsitako legea betetzeaz gain, ekarriko lieke EAEko familia jasotzaileei 50 euro gehiago kobratzea, gutxi gorabehera. %8ko igoera ez aplikatzeak garai batean onetsitakoa ez betetzea, eta jenderik behartsuena 50 euro horiek gabe uztea.

%7ko murrizketa kenduko balitz, eta LGSaren igoera DBEn gehituko balitz, bakarrik bizi den pertsona bati 726,5 euro hilean bermatuko litzaioke, orain baino 101 euro gehiago. Bidezkoa delako, hala onetsi zen Eusko Legebiltzarrean 2008an. Horrela ez egiteak ez du zuribiderik, ez bada, noski, Gobernuak nahiago duela diru hori beste gauza batzuetan gastatzea; herritar horiei, bizimodu duinago bat izateko, diru-sarrera batzuk bermatzea baino.

**9.-DBE igotzeak enplegua bilatzeko gogoa hozten duela?**

Ez dio inork lan egiteari utziko DBE 50 edo 100 euro igotzeagatik. Gizarte-prestazioak beherantz botatzea proposatzen dutenek jendea lan prekarioak eta oso gaizki ordainduak onartzera behartu nahi dute. Pobrezia hedatu eta enpresek are diru gehiago irabaztea nahi dute. Soldata baxuak eta gizarte-babesik ahulena. DBE handi batek ezeri kalte egitekotan, zabor-enpleguari egingo dio kalte. Eta hori albiste ona litzateke. Hala ere, ikusi besterik ez dago nola dagoen lan-mundua, eta berehala konturatuko gara oraindik zoritxarrez oso urruti gaudela egoera horretatik.

## STOP XENOFOBIARI

**Hainbat komunikabide publiko eta pribaturen azaletan kriminalizazio-kanpainak agertu dira DBE jasotzen dutenen kontra. Oso larria iruditzen zaigu DBE jasotzaileak kriminalizatzea. Jende hori ezkutuan dabil, ez dira ausartzen esatera DBE behar dutela hilabetea amaitu ahal izateko.**




**Komunikabide horiek mezu xenofoboak igortzen dituzte etengabe, yihadismoa eta delinkuentzia DBEarekin lotuz. Ez dabiltza oso urruti Donald Trumpen esanetatik. Bada garaia mozorroa kentzeko kriminalizazio-kanpaina horren atzean dagoenari. Ezkutuko helburua eskubide sozialak murriztea, eta gizartea insolidarioago, arrazistago eta axolagabeago bihurtzea.**

## IRUZURRA KRIMINALIZATZEKO AITZAKIA

Azterlan ofizial guztien arabera DBEaren iruzurra oso maila baxuetan dago. Pentsiodunek, langileek, langabeek iruzurra egiten dute? Ez. Bada, horiek dira jasotzaile gehienak, lehen azaldu dugun bezala.

ELA iruzurraren aurka dago guztiz, iruzurra errotik kendu behar da. Hala ere, deigarria da nola azpimarratzen den DBEren iruzurra, eta nola erlatibizatzen den iruzur fiskala.

EHUaren txosten baten arabera EAEko iruzur fiskala urtean 3.200 milioi euro ingurukoa da. DBEn urtean egiten den inbertsioa 400 milioi baino apur bat gehiagokoa. DBEko iruzurra %5 izatekotan, eta ez da, urtean 20 milioi izango ziren; iruzur fiskala, ordea, 160 aldiz handiagoa da.

Gauza bat iruzurraren aurka egitea da, eta horrekin bat gatoz; eta beste bat, zenbait kasuren aitzakiatan gizarte-eskubideak murriztu nahian ibiltzea. Hori ez dugu onartuko.




## MOBILIZATU BEHARRA DAGO

Kalera atera behar gara, orain dela 9 urte onetsitako legea betearazteko. Gure agintariek aho betean hitz egiten digute aberastasunaz, hazkundeaz... Europako puntakoak garela. Bada, ea noiz gauzatzen duten. Harro sentitzekoa da borroka honetan parte hartzea, pertsona guztiei diru-sarrera duinak bermatzeko. Hain eragin sozial handia duen borroka honetan parte hartzeak merezi du, asko gainera.




**APIRILAK 1 LARUNBATA MANIFESTAZIOA**
**17:30 BILBO (JESUSEN BIHOTZA)**
**ESKUBIDE SOZIALEN DEFENTSAN**